# Xedapen Orokorrak

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-4212

169/2000 DEKRETUA, irailaren 1ekoa, Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorraren funtzionamendu-araudia onartu eta boluntariotzari buruzko zenbait alderdi arautzen dituena.

Boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen 10. artikuluaren bitartez, Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorra sortu zen, gizarte-ongizateko eskumenak dituen sailari atxikita. Halaber, 2. Xedapen Gehigarriak zera esaten du, Legea indarrean jarri eta sei hilabeteko epean, gizarte-ongizateko eskumenak dituen sailaren sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorraren funtzionamendu-araudia onartuko duela.

Dekretu honen bitartez, erroldaren edukia zehaztu, erakundeak inskribatzeko prozedura ezarri eta erakundearen eta pertsona boluntarioaren arteko akordioa edo hitzarmena egiteko agiri normalizatuaren eredua sortzen da.

Administrazio publikoen eta erakundeen arteko harremanek lankidetza, osagarritasuna eta partaidetza dute oinarri.

Gaur egun ezinezkoa da gizartearen behar berriei administrazio publikoetatik bakarrik erantzutea. Beraz, erantzukizunak eta jarduketak administrazio publikoen eta borondatezko gizarte-elkartasuneko erakundeen artean banatuta bakarrik lortuko da gizarte justu eta berdintasunezkoa.

Beraz dekretu honen bitartez, lehenengo eta behin, Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat boluntariotzako erakunde dauden jakin nahi da, ondoren «Euskal Boluntariotzaren Kontseilua» eratzeko eta Eusko Jaurlaritzak alor horretan dituen eskumenak gauzatzeko. Hauek dira eskumen horiek:

– Boluntariotzaren baliabideen katalogo publikoa egitea.

– Boluntariotzari buruzko agiri-fondo eta datu-base bat osatzea, dauden foroak koordinatzeko.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoak dioenari jarraituz, Justizia, Lan eta Gizarte Se-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-4212

DECRETO 169/2000, de 1 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento de funcionamiento del Censo General de Organizaciones del Voluntariado y se regulan determinados aspectos relativos al Voluntariado.

La Ley 17/1998, de 25 de junio, del voluntariado, en su artículo 10 crea el Censo General de Organizaciones del Voluntariado en el Departamento del Gobierno Vasco que tenga asignadas las competencias en materia de Bienestar Social. Asimismo, la Disposición Adicional 2.ª establece que en el plazo de seis meses a partir de la entrada en vigor de esta Ley, el Gobierno Vasco, a propuesta del Consejero o Consejera del Departamento que tenga asignadas las competencias de Bienestar Social, aprobará un reglamento de funcionamiento del Censo General de Organizaciones del Voluntariado.

Con este Decreto se trata de establecer el contenido del Censo, el procedimiento de inscripción de las organizaciones y la creación de un modelo normalizado de documento de acuerdo o compromiso, entre la Organización y la persona voluntaria.

Las relaciones entre las Administraciones Públicas y las Organizaciones se inspirarán en los principios de colaboración, complementariedad y participación.

Entendiendo que en la actualidad, no es posible dar respuestas a las nuevas necesidades sociales desde la perspectiva exclusiva de las Administraciones Publica y que, solamente desde la corresponsabilidad y la acción compartida entre las Administraciones Publicas y la solidaridad social voluntaria, es pensable la construcción de una sociedad mas justa e igualitaria.

Por consiguiente, con la articulación de este Decreto, se trata de cumplimentar el objetivo inicial y básico de conocer el número y la composición de las Organizaciones del Voluntariado existentes en la Comunidad Autónoma del País Vasco, para con posterioridad poder crear y desarrollar el «Consejo Vasco del Voluntariado» y realizar el resto de las competencias del Gobierno Vasco en la materia:

– Confeccionar un catálogo público de los recursos del voluntariado.

– Crear un fondo documental y base de datos sobre el voluntariado que coordine los distintos foros existentes.

En su virtud y de acuerdo con el dictamen de la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, y a pro-

gurantza sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2000ko irailaren 1ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– Xedea.

Euskal Autonomia Erakidegoko Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorraren araudia onartzea da Dekretu honen xedea. Errolda hori Boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen bitartez sortu zen, gizarte-ongizate alorreko eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita. Dekretu honen beste helburuetako bat boluntariotzari buruzko beste zenbait alderdi arautzea da.

*2. artikulua.*– Aplikazio eremua.

Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrean erakunde hauek inskribatu ahal izango dira: batetik, boluntariotzako erakunde deitzen direnak, hau da, gehien bat boluntarioz osatuta egonik, beren egitasmo eta proiektu gehienak boluntario horien bitartez betetzen dituztenak, 17/1998 Legearen arabera, eta, bestetik, izaera hori eduki ez arren, beren jardueren barruan boluntarioek parte hartzen duten programak dituztenak. Erakunde horiek EAEaren eskumeneko elkarte, fundazio edo kirol-elkarteen erregistroetan egon behar dute inskribatuta, edo, beren eraketa, egoitza edo helbide sozialagatik hala badagokie, antzeko erregistroetan.

Kasu guztietan, erakundeen izaera juridikoa dena dela, baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Legez eratuta egotea.

b) Berezko nortasun juridikoa izatea.

c) Irabazi-asmorik ez izatea.

d) Boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen 3. artikuluan interes orokorrekotzat jotzen diren programak edo proiektuak gauzatzea.

*3. artikulua.*– Inskripzioaren ondorio juridikoak.

Inskripzioa borondatezkoa izango da boluntariotzako erakundeentzat. Inskribatuta egoteak parte hartzeko eta biltzeko gune den Boluntariotzako Euskal Kontseiluan parte hartzeko aukera emango die, baita administrazio publikoek beren eskumenen barruan dirulaguntzak emateko eta jarduerak sustatzeko egiten dituzten programetan esku hartzeko ere.

*4. artikulua.*– Inskripzioaren edukia.

1.– Inskripzioan datu hauek eman behar dira:

a) Erakundearen izena.

b) IFZ.

puesta del Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, previa deliberación del Consejo de Gobierno en la sesión celebrada el día 1 de septiembre de 2000,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto aprobar el Reglamento de Funcionamiento del Censo General de Organizaciones del Voluntariado del País Vasco, creado por la Ley 17/1998, de 25 de junio, del voluntariado, y adscrito al Departamento del Gobierno Vasco que tenga asignadas las competencias en materia de Bienestar Social. Así mismo es objeto de este Decreto regular determinados aspectos relativos al voluntariado.

*Artículo 2.*– Ámbito de aplicación.

En el Censo General de Organizaciones del Voluntariado se inscribirán, además de las denominadas organizaciones de voluntariado, es decir, aquellas que según el art. 8.2 de la Ley 17/1998, están integradas mayoritariamente por voluntarios y desarrollen la mayoría de sus programas o proyectos de acción fundamentalmente a través de tales voluntarios/as, las organizaciones que sin tener tal consideración, cuenten entre sus diferentes actividades con programas participados por voluntarios/as. Tales Organizaciones, estarán debidamente registradas en los correspondientes registros de asociaciones, fundaciones o asociaciones deportivas de competencia de la CAPV, o en su caso, por razón de su constitución y sede o domicilio social, figurarán inscritas en registros similares.

En todos los casos, independientemente de la forma jurídica de dichas organizaciones, deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Estar legalmente constituidas.

b)Estar dotadas de personalidad jurídica propia.

c) Carecer de ánimo de lucro.

d) Desarrollar programas o proyectos en el marco de las actividades de interés general definidas en el artículo 3 de la Ley 17/1998, de 25 de junio, del voluntariado.

*Artículo 3.* – Efectos jurídicos de la inscripción.

La inscripción que se realizará con carácter potestativo por parte de las Organizaciones del Voluntariado posibilitará a las mismas, estar presentes en el Consejo Vasco del Voluntariado, órgano de encuentro y participación y así mismo, acceder a las medidas de fomento y programas subvencionales que realicen las Administraciones Públicas en el ámbito de sus competencias.

*Artículo 4.*– Contenido de la inscripción.

1.– Los datos objeto de la inscripción serán los siguientes:

a) Nombre de la organización.

b) NIF.

c) Erakundearen izaera juridikoari dagokion erregistroan inskribatu izanaren agiria.

d) Helbide soziala, egoitza edo Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkaritza.

e) Erakundearen xedea eta burutzen dituen interes orokorreko jarduerak.

f) Zein esparrutan lan egiten duen.

g) Laguntza jasoko duen populazioaren ezaugarriak.

h) Jardueraren lurralde-eremua.

i) Legezko ordezkaria eta boluntariotzaren arduraduna.

j) Erakundearen giza-baliabideak.

k) Elkarteen kasuan, onuragarritasun publikoko aitorpena, baldin badute.

l) Boluntarioek burututako programa eta jarduerak.

ll) Aseguru poliza.

m) Boluntariotzako barne estatutua.

2.– Inskripzio-datuak egunera edukitzeko eta aldaketen berri izateko, Erroldan inskribatutako erakundeek aurreko puntuan aipatzen diren datuetan gertatzen diren aldaketak eta, oro har, erroldarentzat interesgarri izan daitezkeen antolamendu eta funtzionamendu kontuak jakinaraziko ditu, besteak beste: estatutuen aldaketak, federazio eta konfederazioen sorrera edo bereizketak, Zuzendaritza Batzordearen edo Gobernu Organoaren eta administrazioaren osaketa, entitatearen desegitea eta interesgarri izan daitekeen beste edozein.

***5. artikulua.***– Aseguru poliza.

Boluntzariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen 8. artikuluaren e) letrako 4. paragrafoan xedatutakoaren ondorioz, boluntarioak dituzten erakundeek, beren izaera juridikoa dena dela, aseguru poliza bat egin beharko diete honako hauek estaliko dituena: asistentzia sanitarioa, heriotza eta balioezintasuna eta boluntario-jardueran izandako istripuak eta besteri eragindako kalte-galerak.

Horretarako egin beharreko erantzukizun zibileko polizak 50 milioiko kapitala izango du gutxienez (300.506,05 euro).

***6. artikulua.***– Inskripziorako behar diren agiriak.

Boluntarioak dituzten erakundeek agiri hauek aurkeztu behar dituzte Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrean sartzeko:

c) Número de inscripción en el registro correspondiente a su naturaleza jurídica.

d) Domicilio social, sede o delegación en el País Vasco

e) Fines de la organización y actividades de interés general que realiza.

f) Campo de actuación.

g) Características de la población destinataria.

h) Ambito territorial de actuación.

i) Representante legal y persona responsable del voluntariado.

j) Recursos humanos de la organización.

k) Declaración, si la hubiera, de utilidad pública en el caso de las asociaciones.

l) Los Programas y actividades desarrolladas por los voluntarios.

ll) Póliza de seguros.

m) Estatuto interno del voluntariado.

2.– Al objeto de tomar constancia y tener actualizados los datos objeto de inscripción, las organizaciones inscritas en el Censo deberán comunicar al mismo, todas aquellas variaciones que se produzcan en relación con los extremos que se indican en el apartado anterior y, en general, todos aquellos aspectos de organización y funcionamiento cuyo conocimiento sea de interés para el Censo, tales como: modificaciones estatutarias, integración o separación de Federaciones y Confederaciones, composición de la Junta Directiva u Organo de Gobierno y administración, disolución de la entidad, y cualquier otro dato que pudiera resultar de interés.

***Artículo 5.***– Póliza de seguros.

En virtud de lo dispuesto en el apartado 4, letra e) del artículo 8 de la Ley 17/1998 , de 25 de junio, del Voluntariado, las organizaciones que cuenten con voluntariado, cualquiera que sea su forma jurídica, deberán suscribir una póliza de seguros que garantice a los voluntarios la cobertura por asistencia sanitaria, muerte e invalidez, por accidentes sufridos durante la acción voluntaria, así como por los daños y perjuicios que pudieran ocasionar a terceros en el ejercicio de su actividad.

La póliza de responsabilidad civil suscrita para tal fin, contemplará un capital asegurado mínimo de 50 millones de pesetas (300.506,05 Euros).

***Artículo 6.***– Documentación requerida para la inscripción

Para la inscripción en el Censo General de Organizaciones del Voluntariado de las organizaciones que cuenten con voluntariado se requerirá aportar la siguiente documentación:

a) Izaera juridikoaren arabera dagokion erregistroaren agiria, bertan istribatuta dagoela frogatzen duena.

b) Erakundeko Boluntarioen Barne Estatutuaren kopia. Bertan, gutxienez, boluntarioak hartzeko eta baztertzeko irizpideak eta horien betebehar eta eskubideak jasoko dira.

Boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen Lehenengo Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren ondorioetarako, Dekretu honetako II. Eranskinean erakundearen eta pertsona boluntarioaren arteko konpromisoa edo akordioa gauzatzeko eredu normalizatua eskaintzen da.

c) Aseguru-polizaren kopia eta, horrekin batera, urte horretako aseguru-prima ordaindu izanaren jatorrizko ordainagiriaren kopia eta aseguratutakoen zerrenda.

d) Erakundearen eratze agiriaren kopia. Eratze agiri horrek behar bezala legeztatuta egon behar du.

e) Dekretu honetako II. Eranskinean eskaintzen den inskripzio-agiri normalizatua behar bezala beteta.

7. *artikulua.–* Erroldaren eta Fundazio eta Elkarteen Erregistroen arteko lankidetza.

1.– Erroldaren eta Fundazio eta Elkarteen Erregistroen arteko lankidetza beharrezkoa denez, Erregistroek Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorraren berri emango diete beren eraketa hasierako inskripzioaren bitartez formalizatu nahi duten entitate berriei eta, bereziki, boluntarioak dituztela adierazi dutenei, erroldan ere inskriba daitezen.

2.– Fundazio eta Elkarteen Erregistroetan jadanik inskribatuta dauden erakunde boluntariodunen kasuan, beren estatutuetan elkartearen xedeari buruz xedatutakoa hartuko da aintzat. Ondorio horietarako –eta horietarako bakarrik– erregistroetako arduradunek elkarteen xedeari begiratuta ustez boluntariotzako erakunde diren entitateen zerrenda bidaliko diote Erroldako arduradunari. Behin agiriak aztertuta, Erroldako arduradunak erakundeok Boluntzariotzako Errolda Orokorrean sartzeko izapideak eguneratu eta osatuko ditu.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Ordezko araubidea.

Dekretu honetan prozedurari buruz jasotzen ez diren alderdietan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta hori aldatzen duen 4/1999 Legean ezarritakoa beteko da.

a) Certificado expedido por el Registro correspondiente, según sea la naturaleza jurídica de la entidad, en el que conste fehacientemente su inscripción en el mismo.

b) Copia, en su caso, del Estatuto Interno del Voluntario en la Organización, en el que como mínimo se establecerán los criterios de admisión y exclusión de los voluntarios y sus derechos y deberes.

A los efectos de lo previsto en la Disposición Adicional Primera de la Ley 17/1998, de 25 de junio, del voluntariado, en el Anexo II de este Decreto se facilita modelo normalizado de acuerdo o compromiso entre la organización y la persona voluntaria.

c) Copia de la póliza de seguros, y acompañando a ésta, copia del recibo original acreditativo del abono de la prima de seguro vigente para la anualidad en curso, así como la relación de asegurados a la misma.

d) Copia de los estatutos constitutivos de la organización debidamente legalizados.

e) Modelo normalizado de inscripción que se acompaña como Anexo II de este Decreto, debidamente cumplimentado.

*Artículo* 7 – Colaboración entre el Censo y los Registros de Fundaciones y Asociaciones.

1.– A los efectos de la necesaria colaboración entre el Censo y los Registros de Asociaciones y Fundaciones, éstos informarán a las entidades de nueva creación que pretendan formalizar su constitución mediante la oportuna inscripción inicial, y principalmente a aquellas organizaciones que hayan manifestado contar con voluntariado, de la existencia del Censo General de Organizaciones del Voluntariado para facilitar también su inscripción en el mismo.

2.– Para las organizaciones que cuenten con voluntariado y que ya figuren inscritas en los Registros de Asociaciones y Fundaciones, se estará en principio, a lo dispuesto en sus Estatutos en lo que a fines sociales se refiere. A estos exclusivos efectos, los responsables de dichos registros, remitirán al responsable del Censo, listado de las Asociaciones y Fundaciones que, por razón de sus fines sociales, sea razonable suponer que se tratarán de Organizaciones del Voluntariado. Analizada esta información el responsable del Censo, actualizará y completará la tramitación de la inscripción, en su caso, en el Censo General del Voluntariado.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Régimen supletorio.

En lo no previsto en este Decreto en relación al procedimiento administrativo será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y en la Ley 4/1999, que la modifica.

***Bigarrena.–*** Garatzeko arauak.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari eskumena ematen zaio Dekretu hau garatzeko eta gauzatzeko eman behar diren xedapenak emateko. Halaber, eskumena ematen zaio I. eta II. eranskinetan, egoki iritziz gero, aldaketak egiteko eta Dekretu honetako 5. artikuluan aipatzen den aseguru polizako zenbatekoa eta ezaugarriak ere aldatzeko.

***Hirugarrena.–*** Indarrean sartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia-San Sebastiánen, 2000ko irailaren 1ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

***Segunda.–*** Desarrollo reglamentario.

Se faculta al Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social para adoptar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto. Así mismo, se le faculta para, en su caso, realizar las modificaciones oportunas en los Anexos I y II, así como en la cuantía y características de la póliza de seguros a que hace referencia el artículo 5 de este Decreto.

***Tercera.–*** Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Donostia-San Sebastián, a 1 de septiembre de 2000.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

I. ERANSKINA

BOLUNTARIOTZAKO ERAKUNDEEN ERROLDA OROKORRA

Erroldako zka.: ......................................................

Alta ........................................................................
Baja ........................................................................
Aldaketa ...............................................................

Erakundearen izena:
I.F.Z.
Elkartearen egoitza:
Helbidea
Herria
Posta kodea
Lurralde historikoa edo probintzia
Telefonoa eta faxa
Legezko ordezkaria:
Izen-abizenak
Entitatean duen kargua
Boluntariotzaren arduraduna
Izaera juridikoa:
.............................................................................
Elkartea
.............................................................................
Elkarteen federazioa
.............................................................................
Fundazioa
.............................................................................
Erlijio-erakundea
.............................................................................
bestelakoa ............................................................
.............................................................................
erregistroan inskribatuta .................... zenbakiarekin

Entitatearen egoitza Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo badago, bete ezazue erkidego honetan duen ordezkaritzaren datuak:

Izena
Helbidea
Herria
Posta kodea
Lurralde historikoa
Telefonoa eta faxa
Legezko ordezkaria:
Izen-abizenak
Entitatean duen kargua
Boluntariotzaren arduraduna

Erakundearen jarduera-eremua
Gizarte zerbitzuak
Komunitatearentzako zerbitzuak, oro har
Minusbaliotasun fisiko, psikiko edo sentimenezkoak.
Adineko pertsonak

ANEXO I

CENSO GENERAL DE ORGANIZACIONES DEL VOLUNTARIADO.

N.º censal: ..........................................................

Alta ........................................................................
Baja ........................................................................
Modificación .........................................................

Nombre de la organización:
N.I.F.
Domicilio social:
Dirección
Población
Código postal
Territorio Histórico o provincia
Teléfono y fax
Representante legal:
Nombre y apellidos
Cargo en la entidad
Persona responsable del voluntariado
Naturaleza jurídica:
.............................................................................
Asociación
.............................................................................
Federación de asociaciones
.............................................................................
Fundación
.............................................................................
Institución religiosa
.............................................................................
Otras .....................................................................
.............................................................................
Inscrita en el Registro de .......... con el n.º .............

En el caso de que el domicilio social de la entidad esté situado fuera del País Vasco, completar los datos correspondientes a su delegación en esta Comunidad:

Denominación
Dirección
Población
Código postal
Territorio Histórico
Teléfono y fax
Representante legal:
Nombre y apellidos
Cargo en la entidad
Persona responsable del voluntariado

Campo de actuación de la organización:
Servicios sociales
A la comunidad en general
Minusvalías físicas, psíquicas o sensoriales
Personas mayores

Haur, gaztetxo eta gazteen babesa.
Emakumea
Gutxiengo etnikoak
Etorkinak eta errefuxiatuak
Droga-menpekotasunak
Pertsona marjinatuak eta gizartetik baztertuak edo marjinatuak izateko arriskua dutenak
Presoak, preso ohiak
Gaixotasunen batek jotakoak edo horien senideak

Beste batzuk ..................................................
Komunitatearen garapena
Komunitatea oro har
Auzo-mugimenduak
Kolektibo bereziak ........................................
Kultura eta kirola
Oro har
Artistikoa
Kultura ondarea
Hizkuntza ondarea
Aisia eta tarte libreak
Kirola sustatzea eta egitea
Beste batzuk ..................................................
Garapenerako lankidetza
Ingurumena
Komunitatearen sentsibilizazioa
Ingurumenaren babesa
Beste batzuk ..................................................
Beste Batzuk
Hezkuntza
Ikerketa
Babes zibila
Asoziazonismoaren edo boluntariotzaren sustapena eta babesa
Beste batzuk ..................................................

Hartzaileak sexuaren arabera
Berdin dio
Gizonak
Emakumeak

Hartzaileak adinaren arabera
Berdin dio
Haurrak
Gaztetxoak
Gazteak
Helduak
Adinekoak

Jarduerearen lurralde-esparrua
Toki mailakoa
Lurralde historikoa
Euskal Autonomia Erkidegoa
Estatua
Nazioartekoa ..................................................

Protección a la infancia, adolescencia, juventud
Mujer
Minorías étnicas
Inmigrantes y refugiados/as
Drogodependencias
Personas marginadas y en riesgo de marginación o exclusión social
Presos/as, exreclusos/as
Afectados/as y familiares de afectados/as por una enfermedad
Otros ..........................................................
Desarrollo comunitario
Comunidad en general
Movimientos vecinales
Colectivos específicos ...................................
Cultura y deporte
En general
Artístico
Patrimonio cultural
Lingüístico
Ocio y tiempo libre
Promoción y práctica del deporte
Otros ..........................................................
Cooperación al desarrollo
Medio ambiente
Sensibilización de la comunidad
Protección del medio ambiente
Otros ..........................................................
Otros
Educación
Investigación
Protección civil
Promoción o apoyo al asociacionismo o voluntariado
Otros ..........................................................

Población destinataria por sexo:
Indiferente
Hombres
Mujeres

Población destinataria según edad:
Indiferente
Infancia
Adolescencia
Juventud
Adultos
Personas mayores

Ámbito territorial de actuación:
Local
Territorio Histórico
País Vasco
Estado
Internacional ................................................

Erakundearen helburuak
..............................................................................
..............................................................................

Erakundeak burutzen dituen jardueren azalpen laburra
..............................................................................
..............................................................................
..............................................................................
..............................................................................
..............................................................................

Erakundearen giza-baliabideak:

Boluntarioen kopurua ..............................................
Zuzendaritza lanetan ....................................
Bestelako lanetan ..........................................
Boluntario iraunkorrak ................................
Noizbehinkako boluntarioak ........................
Erakundeko bazkide diren boluntarioak ..................
Bazkideak ..............................................................
Ordaindutako langileak ..........................................
Lanaldi osokoak ............................................
Lanaldi partzialekoak ...................................
Ordezko gizarte-zerbitzukoak .................................

Aseguru poliza: ezaugarriak eta kontingentziak.

Boluntarioen barne-estatutua.

## II. ERANSKINA

### ERAKUNDEAREN ETA PERTSONA BOLUNTARIOAREN ARTEKO AKORDIO EDO KONPROMISOAREN AGIRIAREN EREDU NORMALIZATUA

............................ (tokia eta data) ............................

### HONAKO HAUEK BILDU DIRA

Izen-abizenak: .........................................................
Adinez nagusia. NAN zka.: ....................................
Ordezkatzen duen irabazi asmorik gabeko erakundearen izena: .............................................................
(elkartea, fundazioa, bestelakoa). Erakundean duen kargua: ......................................................................
(lehendakaria, administratzailea, etab.) Erakundearen helbidea: Herria: ....................................................,
Kalea: ...................................................................
Dagokion erregistroa (elkarteena, fundazioena, beste bat): Erregistroko zenbakia: ....................................

Izen-abizenak: .........................................................
Adinez nagusia. NAN zka.: ....................................
Helbidea: herria: ....................................................,
kalea: ....................................................................

Fines de la organización:
..............................................................................
..............................................................................

Breve descripción de las actividades que realiza la organización:
..............................................................................
..............................................................................
..............................................................................
..............................................................................
..............................................................................

Recursos humanos de la organización:

Personas voluntarias. ...............................................
Dedicadas a tareas directivas ...................................
Dedicadas a otras tareas ................................
Voluntariado permanente .............................
Voluntariado ocasional ................................
Personas voluntarias que tienen carácter de socio/a ...
Socios/as ................................................................
Personal remunerado ...............................................
A tiempo completo ......................................
A tiempo parcial ..........................................
Prestación social sustitutoria ...................................

Póliza de seguros: Características y contingencias.

Estatuto interno del Voluntariado.

## ANEXO II

### MODELO NORMALIZADO DE DOCUMENTO DE ACUERDO O COMPROMISO ENTRE LA ORGANIZACIÓN Y LA PERSONA VOLUNTARIA

En ..........................., ....... de ................... de ......

### REUNIDOS/AS

D./Dña. ................................................................,
mayor de edad, provisto/a de D.N.I. núm. .............,
en calidad de (Presidente/a, Administrador/a, etc) ....
..............................................................................
y en representación de la organización sin ánimo de lucro (Asociación, Fundación, otra) ............................,
domiciliada en .......................................................,
calle ......................................................................,
y registrada con el núm. .........................................
en el registro (de asociaciones, de fundaciones, otro) .
..............................................................................

D./Dña. ..................................................................
mayor de edad, provisto/a de D.N.I. núm. .............,
y domiciliado/a en ................................................,
calle .......................................................................

(Pertsona boluntarioa adin txikikoa bada edo tutoretzapean badago, gurasoak edo tutorea ere agertuko dira, eta baimena ematen dutela adierazteko, sinatu egingo dute entitatearen ordezkariaren eta boluntarioaren ondoan.)

Eta agiri honen bitartez, erakundeko barne estatutuan boluntarioak onartzeko ezarritako irizpideei eta Boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen 8.3 artikuluari jarraituz, akordio/konpromiso hau sinatu dugu:

BOLUNTARIOTZAKO AKORDIOA/KONPROMISOA

I. Pertsona boluntarioaren konpromisoa

..........................................................................
jaunak/andreak jarraian aipatzen .............................. den denbora-aldian beherago zehazten diren interes orokorreko jardueretan aritzeko konpromisoa hartzen du. Jarduerok irabazi asmorik gabeko ........................... erakundearen bitartez burutuko ditu, aipatzen diren proiektu edo egitasmoen barruan, era desinteresatuan, elkartasunagatik, borondatez eta askatasunez, eta ez lan edo funtzionario harreman baten edo obligazio pertsonal edo juridiko baten ondorioz. Beraz, ez du inolako ordainsari ekonomikorik jasoko, ezta ordaindutako lanbide-zerbitzurik ordezkatuko ere

Jarduerok bi data hauen artean burutuko ditu: .... .....................................eta .....................................

Jarduerak:

(Zehaztu jarduerak behar beste eta aipatu zein egitasmo edo proiekturen barruan dauden)

a)

b)

c)

d)

II. Erakundearen onarpena.

Irabazi asmorik gabeko ....................................... erakundeak onartu egiten du ................................... jaunaren/andrearen konpromisoa.

III. Pertsona boluntarioaren eskubideak

a) Erakundean aktiboki parte hartzea; erakundeari buruzko informazioa jasotzea, bereziki, helburuei, antolaketa-egiturari eta funtzionamenduari buruzkoa, eta entitatearen barruan partaidetza-organoak sortzea eta horietan parte hartzea.

(Si la persona voluntaria fuera menor de edad o sujeta a tutela deberán figurar también los padres o tutor y hacer constar su consentimiento con su firma junto a la de la persona representante de la entidad y la del voluntario/a.)

Con el presente documento, y de acuerdo con lo dispuesto sobre los criterios de admisión de los voluntarios en el Estatuto interno de la organización y en el artículo 8.3 de la Ley 17/1998, de 25 de junio, del voluntariado, establecen el siguiente

ACUERDO/COMPROMISO DE VOLUNTARIADO

I. Compromiso de la persona voluntaria

D./Dña. ............................................................
se compromete a realizar, a través de la organización sin ánimo de lucro ......................................................, durante el período que se cita, las actividades de interés general que se indican a continuación, dentro de los proyectos o programas que así mismo se indican, de manera desinteresada y con carácter solidario,voluntaria y líbremente, sin traer causa de una relación laboral, funcionarial o mercantil, o de una obligación personal o deber jurídico, sin retribución económica, y sin sustituir, en ningún caso, servicios profesionales remunerados.

Las actividades se realizarán en el período comprendido entre ............................... y ...............................

Actividades:

(Descripción, con el suficiente detalle, de las actividades y de los programas o proyectos en que están comprendidas)

a)

b)

c)

d)

II. Aceptación de la organización.

La organización sin ánimo de lucro ...................... acepta el compromiso de D./Dña. ............................

III. Derechos de la persona voluntaria

a)Participar activamente en la organización, recibiendo la debida información sobre ella, y en especial sobre sus fines, estructura organizativa y funcionamiento, así como de constituir y ser parte de los órganos de participación constituidos en el seno de la entidad.

b) Erakundearen egitasmo eta proiektuak diseinatzen, egiten, burutzen eta ebaluatzen laguntzea, baldin eta horietan parte hartzen badu, eta boluntario den aldetik eragiten dioten erakundeko hainbat alderdiri buruzko iritzia ematea.

c) Boluntario gisa egiten duen lanak eskatzen duen teknika-, giza- eta prestakuntza-laguntza jasotzea eta bere ezaugarriei ondoen egokitzen zaizkion jarduerei buruzko orientabideak izatea.

d) Boluntario gisa egiten duen lanagatik beste norbaitek jaso ditzakeen kalte-galerak estaliko dituen aseguru-poliza bat izatea.

e) (Aukerakoa) Bere jarduerak ekarri dizkion gastuengatiko ekonomi-ordaina jasotzea, muga hauen barruan: ....................................................................

f) Jarduerak bere inguru hurbilenean burutzea, egitasmoek edo programek horretarako aukera ematen badute.

g) Tratu diskriminatzailerik ez jasotzea. Aitzitik, tratua zuzena izango da eta bere askatasuna, duintasuna, intimitatea eta sinismenak errespetatuko dira.

h) Jarduerak segurtasun eta higieneko baldintza egokietan betetzea, jardueraren beraren izaera eta ezaugarrien arabera.

i) Gizarteari eman dion laguntza aitortzea eta errespetatzea.

j) Boluntariotza askatasunez uztea, horren berri eman ondoren.

k) Ordenamendu juridikoak boluntarioari aitortzen dizkion gainontzekoak.

IV. Boluntarioaren betebeharrak

a) Bere aukeren eta borondatearen barruan, erakundeari laguntzea eta horretan parte hartzea eta lan egitea.

b) Erakundearekin hartutako konpromisoak betetzea, horren helburuak eta gobernu-arauak errespetatzea.

c) Esleitu zaizkion zereginak arduraz burutzea eta erakundeko arduradunek ematen dizkioten jarraibideak betetzea.

d) Erakundeak antolatzen dituen prestakuntza-jardueretan eta ematen dituen zerbitzuen kalitateari eusteko behar direnetan parte hartzea.

e) Boluntario jardueran jaso edo ezagutu duen informazioa isilpean gordetzea.

f) Bere laguntza jasotzen duten pertsonen edo pertsona-taldeen eskubideak errespetatzea.

g) Boluntario-kreditazioa eta erakundearen ezaugarria egoki erabiltzea.

b) Colaborar en el diseño, elaboración, ejecución, y evaluación de los programas o proyectos en que intervenga así como tener la oportunidad de dar su opinión sobre aspectos de la organización que le afecten como voluntario/a.

c) Recibir el apoyo técnico, humano y formativo que requiera la tarea que desempeña como voluntario/a, y recibir orientación sobre las actividades para las que reúna las mejores condiciones.

d) Recibir la cobertura de un seguro por los daños y perjuicios que el desempeño de su actividad como voluntario/a pudiera causar a terceros.

e) (Opcional) Recibir una compensación económica por los gastos realizados en el desempeño de su actividad, con los siguientes límites: ................................

f) Desarrollar las actividades en su entorno más próximo, en la medida que los programas o proyectos lo permitan.

g) Recibir un trato no discriminatorio y justo, respetando su libertad, dignidad, intimidad y creencias.

h) Realizar su actividad en las debidas condiciones de seguridad e higiene, en función de la naturaleza y características de la misma.

i) Obtener el respeto y reconocimiento a su contribución social.

j) Cesar libremente, previo aviso, en su condición de voluntario/a.

k) Los demás que el ordenamiento jurídico reconozca al voluntariado.

IV. Obligaciones del voluntario/a

a) Apoyar, en la medida de sus posibilidades y voluntad, activamente a la organización, participando y colaborando con la misma.

b) Cumplir los compromisos adquiridos con la organización, respetando los fines y la normativa por la que se rige.

c) Actuar diligentemente en la ejecución de las tareas que le sean encomendadas y seguir las instrucciones que se le impartan por los responsables de la organización.

d) Participar en las actividades formativas previstas por la organización y en las que sean necesarias para mantenerla calidad de los servicios que se prestan.

e) Guardar la confidencialidad de la información recibida y conocida en el desarrollo de su actividad voluntaria.

f) Respetar los derechos de las personas o grupo de personas a quien dirige su actividad.

g) Utilizar adecuadamente la acreditación de voluntario y el distintivo de su organización.

h) Bere esku uzten diren baliabide materialak zaintzea.

i) Boluntario-lana indarrean dagoen legerian ezarritako printzipioen arabera betetzea.

j) Antolamendu juridikoan boluntarioei buruz ezartzen direnak.

k) Ezartzen diren segurtasun eta higiene neurriak errespetatzea.

V. Akordioa/konpromisoa hausteko arrazoiak.

a) Hitzartutako epea amaitzea.

b) Alderdietako edozeinek bere betebeharrak nabarmen ez betetzea.

c) Hitzartutako jarduerak bete ezin izatea.

d) Erakundea desagertzea.

........................................................ jauna/andrea
........................................................... jauna/andrea

(Erakundearen ordezkaria) (Boluntarioa)

(Eredu honetan eduki gehiago ere sar daiteke, alderdi biek egoki irizten dioten eran, indarrean dagoen antolamendu juridikoa aintzat hartuta.)

h) Cuidar los recursos materiales que se pongan a su disposición.

i) Realizar la acción voluntaria conforme a los principios establecidos en la legislación vigente.

j) Las demás que se deriven del ordenamiento jurídico que hagan referencia al voluntariado.

k) Observar las medidas de seguridad e higiene que se adopten.

V. Causas de resolución del acuerdo/compromiso.

a) Fin del plazo concertado.

b) Manifiesto incumplimiento por cualquiera de las partes de sus deberes.

c) Imposibilidad de cumplimiento de las actividades objeto del compromiso.

d) Extinción de la entidad.

D./Dña. ..............................................................
D./Dña. ..................................................................

(Representante de la organización) (Voluntario/a)

(El contenido del presente modelo se puede ampliar, de la manera que estimen ambas partes, teniendo presente el ordenamiento jurídico vigente)

## Zk-4213

182/2000 DEKRETUA, irailaren 19koa, bazterturik edo baztertuta izateko arriskuan dauden pertsonak laneratzeko AUZOLAN izeneko Programa artikulatzen duena.

Maiatzaren 22ko 12/1998 Legeak, Gizarte Bazterkeriaren aurkakoak, bazterkeriaren (pertsonaren, gizartekoaren nahiz lanekoaren) arriskuari aurrea hartzeko eta bizitza independentea aurrera eramateko beharrezko baliabiderik (pertsonarenik, gizartekorik nahiz ekonomikorik) ez dutenei gizarteratzen laguntzeko beharrezkoak diren tresnak (gizarte arlokoak zein laguntza ekonomikoak) arautu zituen.

Lege horretan, honela definitzen da gizarte bazterkeria: gizarte-eskubideak baliatzeko ezintasuna edo gaitasunik eza. Eskubide horien artean, lanerako eskubidea nabarmentzen da gehienbat, baina beste batzuk ere hor sartu beharrekoak dira: hezkuntza eta prestakuntza

## N°-4213

DECRETO 182/2000, de 19 de septiembre, por el que se articula el Programa AUZOLAN, para la Inserción Laboral de las personas en situación o riesgo de exclusión.

La Ley 12/1998, de 22 de mayo, contra la Exclusión Social, regula los instrumentos de carácter social y las prestaciones económicas necesarias para prevenir el riesgo de exclusión y para contribuir a la inserción de quienes carezcan de los recursos personales, sociales o económicos suficientes para desarrollar una vida independiente.

En dicha Ley se define la exclusión social como la imposibilidad o la incapacidad de ejercer los derechos sociales. Entre dichos derechos se destaca, fundamentalmente, el derecho al trabajo, pero también se deben incluir otros, como el derecho a la educación, a la for-